

«Eskerrak karpari!»

Euri jasa artean ireki ditu ateak Literaturia letren azokak, Zarautzen. Ahotsenearen karparen barruan ezarri dituzte aurten liburu aurkezpenak eta erakusmahaiak, lehen aldiz. Garai gogorrotan ere euskal letren jaialdiari eutsi izana eskertu dute editoreek

Amagoia Gurrutxaga Uranga Zarautzen

Euskal letren plaza izateko asmoz sortu zuten Literaturia, 2008an, Larrabetzun (Bizkaia). Jaialdia Zarautzera (Gipuzkoa) aldatu zen 2014an, eta bertan segitzen du oraindik ere, baina ohiko guneetako bat aldatu du aurten: Musika plazan jarri ohi zituzten beren mahaiak bertarututako argitaletxeek; Lege Zaharren enparantzara aldatu da aurten, eta Ahotsenearen karpa izan du babes.

«Eskerrak karpari!», horixe zen atzo esaldirik errepikatueneakoa, azoka ireki berriaren, tartekako zaparrada mardul artean ari zelako joaten goiza. Batzuek gogoan zituzten duela bi urteko eurrirant bustitako liburuak eta mahaiak: «Musika plazan bagina orain, azoka bertan behera utziko lukete akaso». Karpa sarreratik barrena begiratu, urre koloreko bi besaulki, mahai txiki bat, eta hainbat aulki ikus zitezkeen. «Liburu aurkezpenetarako txokoa da».

Azokako mahai gainak liburuaz jantzen ziren bitartean, Modelo zineman hasia zen *Ezberdin bezain ederipuin* kontaketa, Mariano Hurtado eta Nerea Ariznabarretaren eskutik, 11:00etan. Ordu erdi geroago hasi zen liburu aurkezpenen soka, karpa barruan, Cira Crespo eta Elena Ziordianen *Bagina. Euskal Herriko historia emakumeen bitartez* (Txalaparta) lanarekin.

Hasiera ofiziala

Eguerdian puntuan, EIZIERi, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretaren Elkarteari, aitortza eginez ireki zuten azoka, ofizialki. Jaialdiaren lelo nagusiari -*Atea: hitza da giltza*- aipamen eginez hartu zuen oroigarria Mila Garmendiak: «EIZIEko giltza nire etxeko giltzen artean bizi da, eta Arantzazu lankideak eta biok egunero zabalitzen ditugu EIZIEko ateak. Hori da elkartearen ideia, hain zuzen ere: ateak zabalizabali izatea denontzako».

Bego Montoriok, ondoren, es-



Mila Garmendia eta Bego Montorio, EIZIERi emandako oroigarriekin. FOKU



Itzultzaileok oso eroso sentitu gara beti Literaturian; horren adibide da 2015etik antolatu dugun tailerra»

Bego Montorio
Itzultzailea

kerrak eman zizkion Literaturiarri, itzulpengintzari «betidanik» egin dion tokiagatik; itzulpengintzak euskal literaturari egin dion ekarpenean «arreta jarzteagatik»; eta «itzulpenak herritarrengana hel daitezten» egin duen ahaleginagatik. «Itzultzaileok beti sentitu izan gara eroso hemen, eta horren adibide da 2015az geroztik EIZIEk eta Literaturiak antolatu dugun itzulpen tailerra». Horren harira, aurreko urteetan tailer amaierako irakurketa eleantzean parte hartu duten zarautzarrei eskerrak eman zizkion Montoriok: «Hor uzartu gara normalean itzulean egoten garen pertsonaio, itzultzaileok eta beste kulturetakoak. Uste dut, haiekin batera, bakoitzak bere kulturako hitzekin, mundurako ateak zabaldu genituela».

EIZIERi egindako omenaldiaren segidan, urre koloreko besaulkietan eseri zen Amaia Telleria, bere



«Urte beldurgarrian gara, eta Literaturia hau bezalako ekimenak oso garrantzitsuak dira guretzat»

Lucien Etxezaharreta
Maiatz

Haizelekuak (Alberdania) aurkezteko. Atzetik, eta 19:00ak bitartean, Eneko Aizpuruaren *Bidasoan gora* (Elkar), Julen Belamunoren *Hotz industrial* (Susa), Igor Estankonaren *Moskito* (Susa), Anjel Lertxundiren *Gilles de Rais* (Alberdania), Xabier eta Martin Etxeberriaren *Valerium tremens* (Elkar), Oier Guillanen *VHS* (Susa) eta Alex Gurrutxagaren *Xabier lete, aberriaren poeta kantaria* (Alberdania) ere aurkeztu zituzten.

Testuingurua gogoan

Euria ez zen izan atzoko hipzide bakarra Literaturiako azokara bildutakoan artean. Alberdania argitaletxeko Jorge Jimenez Bechek, esaterako, bere ustez jaialdiaren ezaugarri nagusia dena nabarmendu zuen: «Hona ez gara asko saltzera etortzen, ahal dugun gutzia saltzen dugun arren».

Antzeko ideari heldu zion Su-



Ahotsenearen karpak hartu du aurten Literaturiako azoka. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

sako Leire Lopezek ere: «Hau ez da makro ekitaldi bat, baina beste zeezer dauka. Literaturazaleekin, beste argitaletxeetako kideekin eta idazleekin elkartzeko espazio bat da, eta, momentu honetan, hainbeste gauza bertan behera geratzen ari direnean, pozgarria da hemen egotea».

Maiatzeko Lucien Etxezaharretak espazio aldaketak azokari ekarritako onura nabarmendu zuen: «Orain arte sakabanatuak ginen Musika plazan, eguraldi txarrarekin ere. Orain, eguraldi ez hain onarekin ere, jendea bilduten da, eta uste dut ideia ona dela aurkezpenak ere toki berdinean egitea». Pandemia garaian, are gehiago: «Urte beldurgarrian gara, liburu dendak itxita eta azokak ezabatuak edo erdi hutsak, eta Literaturia hau bezalako ekimenak oso garrantzitsuak dira».

Aurtengoaren testuinguruari erreparatu zion Txalapartako Ga-

razi Arrulak ere: «Esaten dute pandemia garaian Espainiako Estatu mailan %7 hazi dela irakurzaletasuna». Eta euskara irakurketa hizkuntza bezala atzean ez geratzea, hori ere erronka da.

Euskarazko irakurgai egarriz dagoenak irekiak izango ditu gaur ere Literaturiako azokako karparen ateak, 11:00etatik aurrera. Modelo aretoa, berri, *Ateko zirrikitutik* ipuina kontatuko du Leire Bilbaok, 11:00etan. Ordubetik geroago, omenaldia egingo diote idazle horri. Bi mahai inguruk itxiko dute jaialdia: Miren Amuriza, Antton Olariaga eta Aitor Arregi *Literateak* gaiaren inguruan arituko dira, 12:30etik aurrera, Mikel Sotoren gidaritzapean; 17:00etan, berri, Anari eta Ruper Ordorika entzuteko aukera izango da, *Letragintza: hitza musikaren giltza?* gai hartuta, Jon Eskisabel moderatzaile dutela.